


# ORIO

ERRIOA.  
GURE NORTASUNA



## Errioa, gure nortasuna

Orio errioko herria da. Ibaia da gure ezaugarria, inguruko herrietatik bereizten gaituena. Errioari bizkarra emateari utzi eta aurrez aurre jarri behar gara. Beste begi batzuekin begiratu. Prisma berri batetik. Orainalditik. Etorkizunetik. Iragana ahantzian utzi gabe.

Errioak izena eta izana eman dizkigu. Eta bizitza. Bizibideak, jakintza. Errioak egin gaitu. Errioa. Herria. Oria eta Orio. Maitasun istorio bat. Gazia eta geza. Uretatik. Errio bazterretik. Egunak argitzen ikusten dituena.

Ezin konpreni daiteke Orio erriorik gabe; ezta errioa herririk gabe. Errioa herritik. Herritik errioa.

Errioak badu bidelagun leial bat: itsasoa. Mundura zabaltzeko bidea. Errioa jantzi eta erantzi egiten duena. Egunak hiltzen ikusten dituena. Historia eta istorioak. Bizimodua. Kultura. Jakintza. Nortasuna. Harrotasuna.

Erriotik sortu da herria. Errioak biziberrituko gaitu.

Orio.


Errioa, gure nortasuna.

# ORIAK ORIO: ERRIOTIK HERRIA

Aizkorrin ur-arrastoa, Goierrin erreka, Beterrin ibaia eta Orion erroia da Oria. Gipuzkoako hemeretzti herri zeharkatzen ditu, Zegaman hasi eta Orioraino, 82 kilometrotan.

Oriak, berez, Donostian itsasoratu behar zuen. Ipar isurialdean, ibaien ibilbide naturalak hegoaldetik iparraldera izaten dira itsasora bidean. Oriak badu berezitasun handi bat: Lasarte-Oria parean iparraldeko norabidean dator; baina, naturaren mirakulu bati esker, ekialdetik mendebalderako bidea hartzen du gero. Naturaren mugimendu tektoniko batek Oriamendi magala altxatu zuen eta horrek eragin zuen Oriaren norabide-aldaketa.

Lasarte-Oria, Usurbil eta Orio bustitzen dituen tarte hori da erroiaren eremurik bereziena. Hor hasten da ibaia erro izaten. Izaki bizidun bat bilakatzen da Oria. Arnasa hartzen hasten da. Baita botatzen ere. Bete eta hustu. Hustu eta bete. Fauna eta flora erabat aldatzen dira eta giza jarduera ere bestelakoa da. Jarduera ekonomikoaren motorra bilakatzen da Oria. Oriaren mirari hau gertatu ez balitz, Oriorik ez zen izango. Ez arrantzarik, ez ontziolarik, ez burdinolarik, ezta arraunik ere.



# ZERGATIK HAINBESTE BURDINOLA ORIAN?



Oria ibaia dinamo natural bat izan da historian zehar. Uraren indarrak eragindako energia-bateria bat. Errioa energia-iturri; eta ontziak, garraibide. XIII. mendean Oria zen burdinola-kontzentrazio handienetako zuen eremua. Erriorearen eta inguruaren ezaugarriek burdinolak sortu eta garatzea ekarri zuten. Herriaren industriagune garrantzitsuena.

Erriorearen potentzialez haratago, inguruaren ezaugarri geografikoek eragin zuzena izan zuten burdinolen aroan. Zergatik? Orion lehorreko garraioaren garapena eskasa izan zen: aldapa malkartsuak, erreka-zuloak... Oriotarrek ordea, ahulgunea indargune bihurtzen asmatu zuten. Lehorreko garraioaren ezintasunen aurrean, uretako garraioan espezializatu ziren eta, horretarako, beharrezkoak ziren burdinolak eta ontziolak.



Orion bertan bi burdinola zeuden, Sarikolan biak; Aiako lurretan, Orian batzen diren Aiako erreketan, hamaika. Lau Manterolaerrekan (Oribar, Amas, Manterola eta Agorregi) eta zazpi Santioerrekan (Arrazubiola, Mañarin, Urniola, Segurola, Errekondo, Aristerrazu eta Olatxo).

# 1379


## ORIOREN

## INDEPENDENTZIA

ORIO, HERRI BURDINGILEA, ONTZIGILEA,  
ARRANTZALEA, MERKATARIA ETA NEKAZARIA  
IZAN DA

Oriok 1379an lortu zuen hiribildu-izaera. Horrek esan nahi zuen aurrerantzean bere buruaren jabe izango zela herri gisa. Ordura arte, Donostiaren menpeko portua zen. Aurrerantzean, askatasun eta burujabetza ekonomikoa, jurisdikzionala eta politikoa izango zituen eta horrek industriaren hauspotzea ekarri zuen.

Hiribildu izateak erriorearen jurisdikzioa eman zion Oriori. Errioa karga eta desgargarako lekua zen, zergak han kobratzen ziren eta errioa arrantza egitea




eta nasak jartzea Orioren eskumena bilakatu zen. Sudugarai eta Arratola pasabideetako eskubidea oriotarrena zen; bi ontzi erabili ohi ziren pertsonak eta abereak erriorearen alde batetik bestera pasatzeko.

Egia da Orio herri arrantzalea izan dela historikoki, baina ez hori bakarrik. Orio herri burdingilea, ontzigilea, arrantzalea, merkataria eta nekazaria izan da. Logika horretan ulertu behar da Oriok gaur egun duen izaera.

# ORIO

## ONTZIOLEN PARADISUA

ERRIOAREN BI ALDEETAN SORTUTAKO  
EKONOMIAK BIZIMODUA ETA  
BIZIBIDEA EKARRI DIZKIO ORIORI



Hiribildu-izaera lortu eta segidan, Oria inguruko hazkunde ekonomikoa areagotu zen. Baliabide naturalek eta kokapen geografikoak nekazaritzaren pobrezia konpentsatzen zuten. Burdinolek, bestalde, ontzigitza piztu zuten.

Errioaren bi aldeetan sortutako ekonomiak bizimodua eta bizibidea ekarri dizkio Oriori. XIV. mendean, burdinolekin batera, ontziolak ziren ekonomiaren motor garrantzitsuenak. XV. mendetik aurrera ontzigitzaren garrantzia handituz joan zen, eta ekonomiaren *boom*-a gertatu zen.

XV. mendetik XX. mendera mota askotako ontziak egin ziren Orion. Errioaren jarduna, ordea, errusiar mendi baten modukoa zen, eta gorabehera handiak izan zituen: oparotasun-urteak eta krisialdi gogorrak. Oriotarrak, ordea, berasmatzeko gai izan ziren, eta, ondorioz, ahulguneak beti indargune bilakatu ziren oparotasunerako bidean.

# ORIO


## ONTZIOLEN

## PARADISUA

### ZEIN ONTZI-MOTA EGIN IZAN DIRA ORION?

Ontzioletan ogibide askotako jendea elkartzen zen: zurginak, olagizonak, errementariak... Orioko ontzioletan mota askotako ontziak egiten ziren, noski. Beste edozein ontzigintza-guneetan bezala, neurri txikiko ontzi-mota hauek eraikitzen zituzten:

- **Gabarrak eta alak:** erriean zehar erabiltzen ziren, garraiorako eta arantza egiteko.
- **Pinazak, txalupak eta batelak:** arraunez eta belaz eraginak, itsasbazterreko arrantzarako eta atoi-lanetarako erabiltzen ziren batez ere.
- **Zabarrak eta patatxeak:** belaz eragindako merkataritza-ontzi txikiak ziren, eta kabotajeetan eta kortsariotzan erabiltzen ziren batez ere.



XVI. mendetik XX. mendera hauek dira Orian kokatutako ontziolak:

- |  |   |
|--|---|
| 1. Lizaso (XX)                         | 12. Sarikola (XIX)  |
| 2. Altxerri eta Sudugarai (XVII-XVIII) | 13. Uriberrri (XVI-XX)                                    |
| 3. Arratola (XVIII)                    | 14. Oriotarras (XX)                                       |
| 4. Mutiozabal (XIX-XX)                 | 15. Sarasua (XX)  |
| 5. Alberdi-Ostolaza (XX)               | 16. Arrazubia-Portusagasti (XVI)                          |
| 6. Oria (XVIII)                        | 17. Francisco Aspillaga (XVIII)                           |
| 7. Portu-Ondo (XX)                     | 18. Herriko ontziola (XV-XVIII)<br>Marea-Dikea (XVIII-XX) |
| 8. Ortzaika (XX)                       | 19. Zaldua (XX)   |
| 9. Parrokiako ontziola (XVI-XVIII)     | 20. Mapil (XV-XIX)  |
| 10. Ondartxikia (XVI-XVII)             |   |
| 11. Salmaristi (XIX)                   |   |




# ORIO

## ONTZIOLEN


## PARADISUA

Orioko ezaugarri nagusia neurri handiko ontziak erakitzea zen. Besteak beste:


- XVI. eta XVII. mendeetako nao eta galeoiak: arrantza ozeanikorako, Indietako merkataritzarako eta gerrarako erabiltzen ziren.
- XVII. eta XVIII. mendeetako fragatak eta nabioak: batzuk merkataritzarako diseinu aproposak zituzten eta beste batzuk kortsariotzan eta gerran erabiltako ontzi beldurgarriak ziren.
- XIX. mendeko eta XX. mende hasierako zamaontziak: kitxemarinak, goletak, bergantinak, pakeboteak... eta lehen baporeak.
- XX. mendean baxurarako baporeak.



**Gabarrak eta alak:** erriotan zehar erabiltzen ziren, garraiorako eta arrantza egiteko.



**Pinazak, txalupak eta batelak:** arraunez eta belaz eraginak, itsasbaterreko arrantzarako eta atoi-lanetarako erabiltzen ziren batez ere.



**Zabarrak eta patatxeak:** belaz eragindako merkataritza-ontzi txikiak ziren, eta kabotajea eta kortsariotzan erabiltzen ziren batez ere.



# ORIO

## ONTZIOL PARADISUA

### MEDEETAKO GERRAREN ARRANTZA

XVI. mendera arte, Orioko ontzioletan, arrantzarako eta garraiorako ontziak egiten ziren batez ere. Ondorengo urteetan gerra-hotsak iritsi ziren Europara eta beste aukera berri baten aurrean zeuden Orio eta garaiko ontziolak: gerraontzien merkatua.

XVI. mende amaieratik aurrera, Orioko ontzioletan gerraontziak eraikitzeko eskaera indarra hartzen hasi zen, eta horrek ontziolen egonkortzea ekarri zuen. Oriotarrak ontzi handiak eraikitzen espezializatu ziren: galeoien kasko asko eraiki ziren Orion. Zenbat eta ontzi handiagoa eta ederragoa, etekina ere handiagoa zen.




DESEGONKORTASUN  
POLITIKOEK ETA BESTE HAINBAT  
FAKTOREK ORIOKO ONTZIOL  
JARDUNEAN GORABEHERAK  
EKARRI ZITUZTEN

# ORIO

## ONTZIOLEN

## PARADISUA

XVII. mendean, etengabeko gerrek Orioko ontzigintzaren oparoaldirik handiena ekarri zuten. Espainiako Koroak gerrarako ontziak behar zituen. Baina baita ere, Indietatik Sevillara iristen zen zilarra garraiatzeko galeoi handi eta sendoak, hura baitzen inperioari eusten zion faktore nagusia. Gerrak kortsariotzaren loraldia ere eragin zuen. Gipuzkoa Europako kortsario-gune nagusienetakoa bilakatu zen. Mende hartan, Orioko ontzigitzeak, batez ere, erregearen armadarako edo kortsorako gerraontziak erakitzen aritu ziren, Sevillarako galeoiak eta, jakina, arrantza ozeanikoarako ontziak ere bai (Artiko inguruko balea-arrantza indarrean zegoen).



# ORIO

## ONTZIOLEN

## PARADISUA

XVIII. mendearen hasieran ontziolak aurreko mendearen loraldian jarraitzen bazuten ere (batez ere, gerraontziak eraikitzeko eskariak areagotu egin ziren, eta merkataritza-ontzien eskariak ere gorakada izan zuen), 1730eko hamarkadatik aurrera, aldaketa sakonak hasi ziren, Ori ibarreko ontzigintzarako mehatxagarriak zirenak: batetik Espainiako Koroak ontzigileen sarea Oriotik kanpora eraman nahi izan zuen, eta bestetik, merkataritza 1728an sortutako Real Compañía Guipuzcoana de Caracasek bereganatu zuen, neurri handi batean. Enpresa hark bere ontziolak Pasaian kokatu zituen. Jakintzaren esportazio horri aurre egin nahian, Vicente Segurak marea-dike bat eraiki zuen XVIII. mende amaieran. Ingeniaritza obra bat. Arotzak, iltzegileak, zurginak, ontzigileak... herrian lan egiten gera zitezen zen haren asmoa.

ONTZIGILEEN INGURUAN ZEHARKAKO EHUN ENPRESARIAL OSO BAT ZEGOEN MARTXAN: ILTZEGILEAK, AINGURA-OLAK, KATEGILEAK, SOKAGILEAK, BELAGILEAK, ESKULTOREAK, AROTZAK, ATOILARIAK, GARRAIOLARIAK, BASO-GIZONAK, IKAZKINAK, BASERRITAR SAGARDOGILEAK... FAMILIA ASKORI EMATEN ZION JATEN ONTZIGINTZAK ORION



*Marea-dikea*

# ORIO

## ONTZIOLEN

## PARADISUA

XIX. mendean, krisialdia eta susperraldia, biak izan ziren. Batetik, Espainiak bere inperioa galdu zuen: gerraontzien eskakera desagertu egin zen eta garai bateko merkataritza-enpresa handiak ere galdu egin ziren. Oriok, erorialdi horren aurrean, berriz zutzeko premia zuen. Industrializazioaren atarian, ontzigitzaren beste susperraldi bat gertatu zen. Gerraontzietatik arrantza-ontzietara. Ontziola-sistema berri baten aurrean zegoen Orio: ontziola partikularrak eraiki ziren. Garai haietan arrantzarako eta merkataritzarako ontzien eskaria handitu egin zen. Ekoizpena oso handia zen.

XX. mende hasieratik aurrera bapore-ontziak eraikitzen hasi ziren Orion. Horrek esan nahi zuen motorraren indarrez mugitzen zirela ontziak, ez zegoen arraunean egin beharrik. Arrerapauso handia ekarri zuen eta, geroztik, ontzigitza eta arrantza eskutik emanda joango ziren. Txalupa eta bapore-ontzi asko eraiki zen.







# MENDEETAKO ARRANTZAREN GERRA

Orioko itsas historiaren bi ardatz garrantzitsuenak ontzigitza eta balea-arrantza izan dira. Oriar garatu zen ontzigitzako teknologia ekarri zuen oriotarrak urruneko arrantzeta nabarmentzea. Ternuara baleak harrapatzera joaten ziren. Aurretik, bakailao bila. Teknologia ez ezik, bazen beste arrazoi nagusi bat oriotarrak hain urrun arrantzara joateko: Orioko barra. Oso arriskutsua zen barrako sarrera eta irteera.

Garbi dago arrantzaren jarduera oparoa izan dela Orioren itsas historian. Beharbada, balea- eta bakailao-arrantzak egin du ezagun herria, baina baxurako arrantza ere eguneroko jarduna zen Orion. Eguneko eta gertuko arrantza hori itsasadarrean eta nasen bidez egiten zen.






## MENDEETAKO ARRANTZAREN GERRA

ORIOKO ITSAS HISTORIAREN ARDATZ  
GARRANTZITSUENAK ONTZIGINTZA  
ETA BALEA-ARRANTZA IZAN DIRA


### **ORIoTARRAK: BALEA-ARRANTZAREN MAISU**

Erdi Aroan, IX. mendetik aurrera, balea-harrapaketak baliabide ekonomiko handiak lortzea ahalbidetu zuen eta horrek ondorio zuzenak izan zituen Orioren garapen ekonomikoan.

Euskal arrantzak balea handiak harrapatzeko teknikak garatu zituen, eta, une hartan, euskaldunak bakarrik ziren gai hori egiteko. Balearen olioaren monopolioa izan zuten IX. mendetik XVI. mendera. Handik aurrera, jarduera Ternuara eta Artikora zabaldu zen. Irabaziak handiak ziren eta euskaldunak ziren Europa balea-olioz hornitzen zutenak. XVII. mende hasieratik aurrera europarrek euskal arpoilariak kontratatzen zituzten eta euskaldunek irakatsi zizkieten balea harrapatzeko teknikak.



MENDEETAKO  
ARRANTZAREN  
GERRA



1530-1540 BITARTEAN  
ORIO IZAN ZEN  
TERNUARA ONTZI GEHIEN  
BIDALI ZITUEN HERRIA

Zazpi mendez, XVII. mendera arte, euskaldunak, tartean oriotarrak, nagusiak izan ziren jardun horretan. Orduan, balea-harrapaketaren monopolioa galdu eta atzerriko konpetentzia sartu zen. Aldaketa bortitza izan zen eta konpetentzia horri aurre egiteko euskaldunek teknika bat garatu zuten, munduan bakarra zena: ontzi-faktoria. Ontzian bertan txikitzen zuten balea eta bertan urtu olio.

## MENDEETAKO ARRANTZAREN GERRA

### **ORIOARRAK BAXURAKO ETA ITSASBAZTERREKO ARRANTZAN**

Baxurako eta gertuko arrantza ere oso garrantzitsua izan da oriotarren eguneroko bizitzan. Itsasbazterreko arrantza familia askoren bizibidea izan zen. XX. mendera arte, gertuko arrantza oriotarren eguneroko beharrak asetzeko bizibidea zen. Baxurako ontziek harrapatutako gehiena herrian eta inguruan saltzen zen.

Arrantza herria asetzeko adina izatetik, oinarri ekonomikoa bilakatu zen XX. mendean. Hogeita hamar arrantza-ontzi inguru izatera iritsi zen Orio. Aurreko garaietan bakailoak eta balea-koipeak zuten merkataritza-interes handiena; garai berrian, Orioko arrantzaren bultzada hasi zen, industrializazioak lagunduta, eta, era berean, arrain freskoen salmentak, gazitegiak eta kontserba-lantegiak agertu ziren.



ARRANTZA HERRIA ASETZEKO  
ADINA IZATETIK, OINARRI  
EKONOMIKOA BILAKATU ZEN  
XX. MENDEAN. HOGEITA HAMAR  
ARRANTZA-ONTZI INGURU  
IZATERA IRITSI ZEN ORIO

# ORIO

---

## ARRAUNAREN

---

### HERRIA

---

Errioren eta herriaren kokapenak zer eragin izan du arraunean? Zer eman dio Oriak arraunari? Eta zer itsasoak? Oriko barra hain arriskutsua izan ez balitz? Zein ondorio ekarri ditu arraunaren garapenean arrisku horrek? Zergatik dauka arraunak halako indarra Orion? Nondik dator jenio bizi hori? Nolatan izan da hain emankorra horren eremu txikia? Zergatik eta nondik hainbeste garaipen eta bandera? Nola ulertu aurrena iristeko sen hori? Nondik dator trainerua? Nola iritsi da herri bat arrauna bizibide izatetik arrauna bizitzera?

ERRIOA HAIN EGON DENEZ PRESENTE  
ORIOKO HERRIAREN EGUNEROKO  
BIZITZAN, HORREK ARRAUNERAKO  
JOERA NATURAL BAT SORTU DU  
HASIERA-HASIERATIK






# ORIO

## ARRAUNAREN

### HERRIA

#### ERRIOTIK ARRAUN

Gaur egun zubiak batzen ditu bi ertzak; baina, zubirik ez zenean, arraunean egin behar zen. Arraun-ontziak ziren orduko komunikabideak, pertsonak, abereak, elikagaiak, lehengaiak, materialak... garraiatzeko. Errioan ere betidanik egin izan dute arrantza oriotarrek: izokinak, lupiak, aingirak, angulak... Jarduera horiek guztiek arraunlariak zaildu zituzten Orion. Erriorik gabe ezin ulertu Orioko arraunaren historia.



# ORIO

## ARRAUNAREN

### HERRIA

ORIOITARREN GARRAIOBIDE  
NAGUSIA IZAN DA  
ARRAUNA, URRUNERA  
JOAN ETA ITZULTZEKO  
TRESNA, ZAMA ASTUNAK  
ERAMAN ETA EKARTZEKO  
BITARTEKARIA



## ARRANTZATIK ARRAUNA

Arrantzarako oinarrizko tresnak honakoak ziren: bi arraun eta ontzi bat. Arraunaren eta arraunlarien garapenak lotura zuzena du arrantzarekin. Orioko kostaldearen ezaugarrietako bat da kantila beste herri batzuetatik baino urrutiago dagoela. Zer da kantila? Arrainen ibiltokia da, plataforma kontinentalaren hausturan dago eta arrantzale guztiak haraino joan nahi izaten zuten arrantzara. Normalean, kostaldetik bost bat miliatara dago kantila, baina

Oriotik hamabost miliatara dago. Pentsa, garai haietan: motorrik gabe, eskuz eragin behar zitzaion ontziari eta beharrak ekarri zuen Orion arraunlari paregabeak izatea. Arraunean egin gabe, arrainik ez. Kantila urruti izateak eta hemengo haizea belaz nabigatzeko ona ez izateak eragin du arrauna eta arraunerako txalupak garatzea. Eguneroko ogia etxera ekarri beharrak eragin du arraunaren garapena.



# ORIO

## ARRAUNAREN


## HERRIA

### TRAINATIK TRAINERUA

Mendeetan zehar arrantzaleek sardina harrapatzeko traina izeneko sare-mota bat erabiltzen zuten, estua eta luzea. Sare horrekin joaten ziren itsasora arrantzara. Helburua zen sare luze-estu horrekin bueltan-bueltan, zia-boga zabal bat eginez, arraina inbutu batean biltzea. Behin arraina sarearen poltsan bilduta zegoela, arraina lehorreratu egiten zuten.

Arrantza-mota horrek eragin zuen traineruaren teknologia garatzea. Zenbat eta biziagoa eta arinagoa ontzia, hobe.

EGUNEROKO OGIA ETXERA  
EKARRI BEHARRAK ERAGIN DU  
ARRAUNAREN GARAPENA



# ORIO

## ARRAUNAREN

### HERRIA

#### BARRATIK ARRAUNA

Orioko barraren izaera arriskutsuan ere oinarritu daiteke arraunaren bilakaera. Barratik herrian sartzea edo herritik irtetea oso ariketa zaila izan da mendeetan. Batez ere, motorrik eta baporerik ez zegoen garaian.

Arrantzale arraunlariek estrategia asko garatu behar izan dituzte historian zehar barratik sartu edo irteteko. Noiz dator olatua? Noiz da marea gora? Nondik jotzen haizeak? Korronteak? Arrisku horiei guztiei aurre eginez, on-tzien eta arraunaren teknikak hobetuz joan dira urtez urte. Beti senari eta beharrari erantzunez.



# ORIO

## ARRAUNAREN

### HERRIA

#### ERRIOTIK ARRAUN IZAERA

Burdingintza, merkataritza, ontzigintza eta arrantzaren industriek erakusten dute Oriok garaietara egokitzeko eta aurrera egiteko izan duen gaitasuna. Errioko gizarte baten sena eta izaera bizia.

Nola garraiatzen zituzten pertsonak errikoaren ertz batetik bestera? Arraunean. Nola ekartzen zituzten Somorrostroetik burdinoletarako mineralak? Arraunean. Nola eramaten zituzten gerraontzien kaskoak Pasaiaraino? Arraunean, atoiari. Nola ekartzen zituzten hamabost miliatara zegoen kantiletik arrainak herrira? Arraunean. Nola harrapatu eta ekarri zuten Euskal Herriko azken balea? Arraunean. Nola ekarri dituzte kirolaren historian ehunka garaipen eta bandera? Arraunean.

Oriotarrek historian, beharraren beharraz, urrun joan behar izan dute eta urrundik itzuli. Zama astunak eraman eta ekarri behar izan dituzte. Iristen lehenak izateko nahi horrek lehiakortasun handia eman dio herriari.





ORIOARRAK BERRASMATZEKO GAI IZAN  
DIRA ETA, ONDORIOZ, AHULGUNEAK  
BETI INDARGUNE BILAKATU DITUZTE  
OPAROTASUNERAKO BIDEAN

ERRIOAREN BI ALDEETAN SORTUTAKO  
EKONOMIAK BIZIMODUA ETA BIZIBIDEA  
EKARRI DIZKIO ORIORI



